



Urretxuko udala



GIZARTE ZERBITZU SAILA

Urretxun, beraien jarduera gizarte zerbitzuen alorrean garatuko duten elkarteei dirulaguntzak emateko oinarri espezifikokoak.

1.- XEDEA

Deialdi honen xedea da beraien jarduera Urretxuko udalerrian garatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteei dirulaguntzak eskuratzeko sarbidea arautzea eta dirulaguntzak ematea.

Lehentasuna izango dute ondoren pertsona-taldeei zuzenduko zaizkien jarduerak:

- Mendekotasuna edo ezintasunaren bat duten pertsonak.
- Gizartetik baztertuak izateko arriskua duten pertsonak, etorkinak, gutxiengo etnikoak,... etab.
- Egoera ahulean dauden emakumeak: ama guraso bakarra.

Ondorengo jarduerak izango dute lehentasuna:

- Mendekotasuna dute, ezintasunen bat duten eta bereziki diskriminazio anitzeko egoerak (emakume ezinduak, ama guraso bakarrak, emakume etorkinak edo gutxiengo etnikoko emakumeak,...) jasaten duten pertsonen arreta eskaintzeko,

ÁREA SERVICIOS SOCIALES

Bases específicas para la concesión de subvenciones a asociaciones que desarrollen su actividad en el ámbito de los servicios sociales en Urretxu.

1.- OBJETO

Es objeto de la presente convocatoria, la regulación del acceso y concesión de subvenciones a entidades asociativas sin ánimo de lucro que desarrollen su actividad en el municipio de Urretxu, en el ámbito de los Servicios Sociales.

Tendrán prioridad las actuaciones destinadas a los siguientes colectivos:

- Personas dependientes o con discapacidad.
- Personas en riesgo de exclusión social, inmigrantes, minorías étnicas...etc.
- Mujeres en situación vulnerable como: monoparentales, etc.

Tendrán prioridad las siguientes actividades:

- Las dirigidas a la atención, integración/inserción y/o el apoyo a personas dependientes, con discapacidad o en riesgo de exclusión social y en especial a aquellas que sufren situaciones de discriminación múltiple (como mujeres discapacitadas, mujeres monoparentales, mujeres

integratzeko/ gizarteratzeko eta/edo laguntzeko diren jarduerak.

- Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea eta denboraz antzematera bideratutako jarduerak.
- Gizartetik baztertuak izateko egoerei aurrea hartzeko jarduerak.
- Borondatezko lana gizarte-eremuan sustatzeko jarduerak.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko da proposatuko diren jarduerak guztietan. Horrela, Urola Garaia eskualdean emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Planaren Gizarte zerbitzuen alorrean sartzen diren jarduerak lehenetsiko dira.
- Elkarte desberdinen arteko lankidetzak eta koordinazioak bultzatuko duten jarduerak.
- Kultur aniztasuna sustatzea.

Diruz lagunduko diren jarduerak ondoko kategoriatan banatuko dira:

- a) Sentsibilizazioa.
- b) Prestakuntza, informazioa eta/edo gizarteratzea.
- c) Aisialdiko eta garapen pertsonalerako jarduerak.
- d) Besteak

Ondorengoak ez dira diruz lagunduko:

inmigrantes o mujeres de minorías étnicas...).

- La prevención de la violencia contra las mujeres y su detección temprana.
- La prevención de situaciones de exclusión social.
- La promoción del voluntariado en el ámbito social.
- La promoción de la igualdad entre hombres y mujeres en todas las actividades que se propongan. En ese sentido, se priorizarán las actividades que se enmarcan en el área de servicios sociales del II Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la comarca de Urola Garaia.
- La colaboración y la coordinación entre distintas asociaciones.
- La promoción de la interculturalidad.

Las actividades objeto de subvención se distribuyen en las siguientes categorías:

- a) Sensibilización.
- b) Formación, información y/o inserción.
- c) Actividades de ocio y desarrollo personal.
- d) Otros.

No se subvencionarán las siguientes actividades:



1.-Udalak herritarrentzat oro har antolatzen dituen jardueren antzekoak antolatuz gero, hala nola, eskulanak, euskara eta abar. Diruz laguntzekotan, jarduera horien hartzaileak ezaugarri bereziak dituztela eta gainerako jardueratan parte hartu ezin dutela frogatu beharko da eta/edo landa-eremuan eskainiko diren jarduerak izango dira.

2.-Elkarteko kideei bakarrik zuzendutako jarduerak (sentsibilizazio-ekintzak, prestakuntza, informazioa eskaintzekoak edo zabalkundekoak) eta/edo elkarte antolatzailearen lokaletan burutzen direnak. Diruz lagunduko diren ekintzak edo jarduerak herriko leku publikoetan eskainiko dira, hala nola, Kultur Etxean, Labeaga aretoan eta abar. Diruz laguntzekotan, jarduera horien hartzaileak ezaugarri bereziak dituztela eta gainerako jardueratan parte hartu ezin dutela frogatu beharko da eta/edo landa-eremuan eskainiko diren jarduerak izango dira.

3.-Proiektuak dinamizatzen dituzten elkarteen langileen soldaten gastuak, ez eta elkarte edo entitatearen dietak. Hauek bolondresen bidez egiten direla ulertzen da eta Urretxuko udalerriak eta eskualdeak ez dutela langile profesionalen azpiegituraren beharrik.

2. ELKARTE EDO/ETA PERTSONA ONURADUNAK

Urretxun edo Urola Garaia mankomunitateko herriren batean egoitza

1.- Las similares a las que se ofrezcan desde el Ayuntamiento para el público en general como manualidades, euskera, etc., a no ser que se demuestre que las personas destinatarias tengan características especiales que les impidan acceder o participar en las ofrecidas para el público en general y/o se realicen en el ámbito rural.

2.-Las actividades de sensibilización, formación, información y divulgación, que se dirijan exclusivamente a las personas socias y/o se lleven a cabo en los locales de la entidad que los organiza, siendo necesario que esta tipo de actos se lleven a cabo en lugares que propicien el acceso al público en general como Casa de Cultura, Labeaga aretoa, etc., a no ser que se demuestre que las personas destinatarias tengan características especiales que les impidan acceder o participar en las ofrecidas para el público en general y/o se realicen en el ámbito rural.

3.- El pago de gastos de personal de las entidades que dinamizan los proyectos, así como dietas relativas a la propia entidad o asociación. Se entide que éstas se realizán por personal voluntario y que el municipio de Urretxu y la comarca no requieren de infraestructuras de personal profesional de las propias entidades.

2. ENTIDADES Y/O PERSONAS BENEFICIARIAS

Podrán optar a las subvenciones las entidades y/o personas que tengan su

duen elkarte eta/edo pertsonak jaso ahal izango dute diru-laguntza; halaber, Urretxuko udalerrian garatu beharko dituzte beraien ekintzak eta, beti ere, Gizarte Zerbitzuen alorrean.

Udalerrirako interesgarriak direla irizitako gizarte-jarduerek ere salbuespen-izaerako diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte, sustatzaileek gizarte-egoitza Urola Garaiko udalerrian ez badute ere

3. AURKEZTEKO DEBEKUA: ERAKUNDE ONURADUNAK

Ezingo dira diru-laguntza deialdi honetara aurkeztu, diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera santzio penal edo administratiboaren bidez galdua dutenak eta santzio horren ebazpenak ezarriko duen epean. Halaber, ezingo dira deialdi honetara aurkeztu, horretarako gaitasunik ez duela esanez legezko debekuan sartuta daudenak. Debeku horietan barne izango da sexuagakiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, beti ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzak otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren Azken Xedapenean jasotakoari jarraiki.

-Genero edo/eta sexualitate arrazoiengatik diskriminatzen duten proiektuak edo berdintasunaren oinarriak errespetatzen ez dituztenak.

sede en Urretxu o en alguno de los municipios integrantes de la Mancomunidad Urola Garaia, y realicen actividades en el ámbito de los Servicios Sociales en el Municipio de Urretxu.

Podrán también ser objeto de ayudas, con carácter excepcional, aquellas actividades sociales consideradas de interés para el municipio, aunque sus promotores no tengan domicilio social en ninguno de los Municipios de la Mancomunidad Urola Garaia.

3. PROHIBICION PARA CONCURRIR: ENTIDADES BENEFICIARIAS

No podrán concurrir a estas ayudas, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, la persona o entidad solicitante que se encuentre sancionada penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o se halle incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

-Aquellos proyectos que discriminen por motivos de género y/o sexualidad o que no respeten los principios de igualdad.



Urretxuko udala



-Emakumeen eta gizonezkoen arteko aukera berdintasunerako printzipioaren aurkako helburuak, sarbide sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolamendua edo estatutuak dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

-Sexu arrazoiengatik sarbide prozesuan edo funtzionamenduan bazterketa egiten duten elkarteak.

4. ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEAK.

Eskaerak pertsona ordezkari edo arduradunek formalizatuko dituzte Udalak prestaturiko instantzia eredu ofiziala betez. (I ERANSKINA).

Eskaerak aurkezteko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik 30 egun naturaleko epea izango dute eta dirulaguntzaren justifikazioa 2024ko urtarrilaren 31a baino lehen aurkeztu beharko da.

5. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK ETA INFORMAZIOAK.

Eskaerarekin batera, eskatzaileak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

1.- 2023rako diru-laguntzak emateko Oinarri Orokorreko 8 artikuluan xedatutako dokumentazio orokorra, jarraian zehazten dena:

-Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

-Las asociaciones que en su proceso de admisión o en su funcionamiento discriminen por razón de sexo.

4. SOLICITUDES Y PLAZOS DE PRESENTACION.

Las solicitudes deberán formalizarse por parte de la persona representante o persona responsable en el modelo de instancia oficial elaborada por el Ayuntamiento. (ANEXO I).

Las solicitudes deberán presentarse en el plazo de 30 días naturales a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y la justificación de la subvención se deberá presentar antes del 31 de Enero del 2024.

5. DOCUMENTOS E INFORMACIONES QUE DEBEN ACOMPAÑARSE A LA SOLICITUD.

Junto con la solicitud, la entidad solicitante deberá presentar la siguiente documentación:

1.- La documentación general exigida en el artículo 8 de las Bases generales para el otorgamiento de subvenciones para el año 2023, que se detalla a continuación:

a) Eskatera egiten duenaren **nortasun** juridikoa egiaztatzeko dokumentuak

Pertsona juridikoek: entitate eraketa jasotzen duen eskritura edo dokumentua eta estatutoak, Elkartea Erregistroan edo dagokion erregistroan behar den moduan inskribatuta.

Sozietate zibilak edo ondasun-komunitateak: eraketa kontratua, IFZ eta sozietate zibila edo ondasun-komunitatea osatzen duten pertsona guztien NANA edo baliokidea.

b) Legezko **ordezkaritzaren** kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo horren balio bereko dokumentua eta ordezkariaren egiaztapena agiri bidez. Egiaztapen hori notario-ahalordez, eskritura bidez., edo Urretxuko Udalaren ordezkari-tza eredu..).

c) Eskatzailearen **banku-kontuaren titulartasuna** frogatzen duen agiria, eskatzailearen nortasunarekin bat etorriko dena (agiri hauetako edozeinek balioko du horretarako: bankuko kontu-laburpena, libreta edo bankuak egindako egiaztagiria.

d) **Zinpeko aitorpena**, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez legezko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagakiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, beti ere,

a) Documentos acreditativos de la **personalidad** del/la solicitante, en el caso de que solicite por primera vez:

Personas jurídicas: escritura o documento en que conste la constitución de la entidad y los estatutos, debidamente inscritos en el Registro de Asociaciones o en el que corresponda.

Sociedades civiles y comunidades de bienes: contrato de constitución, NIF y DNI de todas las personas que constituyan la sociedad civil o la comunidad de bienes.

b) Para acreditar la **representación** legal: DNI o equivalente de la persona representante y acreditación documental de esa representación: poderes notariales, escrituras, o documento de representación de acuerdo al modelo facilitado por el Ayuntamiento de Urretxu...).

c) Documento justificativo de la **titularidad de la cuenta bancaria** del/la solicitante que tiene que coincidir con la identidad de la persona solicitante (extracto bancario, libreta, certificado emitido por la entidad bancaria...)

d) **Declaración jurada** de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni de hallarse incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se



Urretxuko udala



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren Azken Xedapenean jasotakoari jarraiki jasandako debekuak.

2.- Jarraian adierazten den dokumentazio espezifikoa:

Memoria, elkarte edo entitatearen jardura orokorrarena nahiz diruz lagundu nahi duten proiektu, jardura edo programarena. Aipatu memorian honakoak adieraziko dituzte: Zer helburu lortu nahi duten proiektu, jardura edo programa horrekin, hauek burutzeko epeak eta aurreikusitako datak, metodologia, zein herritarrei zuzentzen diren, bai eta zergatik, eskatzailearen iritziz, uste duen merezi duela udalaren laguntza edo dirulaguntza.

Gastuen eta sarreraren aurrekontua, entitate edo elkartearen jardura orokorrarena (ekintza guztiak) nahiz dirulaguntza eskatzen deneko proiektu, jardura edo programa espezifikoena.

Euskararen jarraipen fitxa (II ERANSKINA)

Berdintasunaren jarraipen fitxa (III ERANSKINA)

Urretxuko bazkide-kopurua

hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

2.- La documentación específica siguiente:

Memoria tanto de la actividad general de la asociación o entidad, como del proyecto, actividad o programa específico que pretende ser subvencionado, con indicación de los objetivos perseguidos con dicho proyecto, actividad o programa, plazos y fechas previstas para su realización, metodología, ámbito de población al que va dirigido, así como de los motivos o razones que, a juicio de la personas solicitantes le hacen merecedora de la ayuda o subvención municipal.

Presupuesto de Gastos e Ingresos, tanto de la actividad General (todas las actividades) de la entidad o asociación, como de los proyectos, actividades o programas específicos para los que se solicite la subvención

Ficha de seguimiento del euskera. (ANEXO II)

Ficha de seguimiento de política de igualdad (ANEXO III)

Número de personas asociadas de Urretxu

2023rako diru-laguntzak emateko Oinarri Orokorreko 8 artikulua xedatzen duen arabera, Urretxuko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetan ematen dituen diru-laguntzak eskuratzeko, datuen bitartekotzako plataformatik eta beste administrazio batzuetatik (NISAE), zehazki:

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Foru Ogasunekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

Interesdunak horiek erabiltzearen aurka egiten badu, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Urretxuko Udalak ofizios egiaztatuko du Udalarekiko betebeharrak betetzen direla

Eskariak osatu gabe agertuz gero, 10 eguneko epea izango da hutsuneak betetzeko; epe hori igarotzen bada eskaria osatu gabe, artxibatu egingo da, beste inolako tramiterik gabe.

Diruz lagundutako jarduera guztien publizitatean (kartelak, plaka oroigarriak, material inprimatua, ...) Urretxuko Udalaren logoa (armarria) azaldu beharko da, eta Udalak oniritzia eman beharko dio publizitate testuari kaleratu aurretik. Horrez gain, jarduera

Tal y como establece el artículo 8 de las Bases generales para el otorgamiento de subvenciones para el año 2023, el Ayuntamiento de Urretxu va a verificar los siguientes requisitos para acceder a las subvenciones que otorgue en esta convocatoria, desde la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, NISAE, en concreto:

- Certificado de estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.
- Certificado de estar al corriente de sus obligaciones tributarias frente a las Haciendas Forales,

Cuando la persona interesada se oponga al uso de los mismos deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

Las certificaciones de estar al corriente con el Ayuntamiento de Urretxu se realizará de oficio.

En el caso que las solicitudes estuvieran incompletas, se concederá un plazo de 10 días para la reparación de la carencia y, una vez transcurrido este plazo sin que se haya completado la solicitud, se procederá al archivo de la misma sin más trámites.

La publicidad (carteles, placas conmemorativas, material impreso, ...) de todas las actividades subvencionadas habrá de mostrar obligatoriamente el logo (anagrama) del Ayuntamiento de Urretxu, y el texto publicitario deberá contar con el visto bueno del Ayuntamiento antes de



Urretxuko udala

edo ekintza horrek Udalaren diru-laguntza duela adierazi beharko da.

6. IZAPIDETZEAZ ARDURATZEN DEN ADMINISTRAZIO UNITATEA.

Eskaerak Gizarte Zerbitzuaren administrazio unitateak izapidetuko ditu.

7. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Oinarri hauetako diru-laguntzak eskatuko dituzten eskatzaileei emango zaizkien zenbatekoak kalkulatzeko, talde bakoitzarentzako ezarriko diren ondoko irizpideen arabera baremoak zehaztuko dira. (23 punturaino).

A1) Elkarteak frogatuta duen ibilbidea, udalerrian urte askotan lan egin eta gero (3 punturaino).

A2) Erakunde onuradunek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen dituzten politikak eta jarduerak garatzen eman duten ibilbidea (berdintasunaren diagnostikoa eginda izatea, berdintasun planak, erakundearen zuzendaritza-organoetan ordezkari paritarioa bermatzeko arauak izatea, egingo diren materialetan hizkuntzaren erabilera ez-sexista izateko arauak izatea, etabar.), (3 punturaino).

A3) Aurreko urteetan eten gabe jasotako diru-laguntzak. (3 punturaino).



su publicación. Además, deberá dejar de manifiesto que dicha actividad ha recibido subvención del Ayuntamiento.

6. UNIDAD ADMINISTRATIVA ENCARGADA DE LA TRAMITACIÓN.

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Servicios Sociales.

7. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES

Para el cálculo de los importes a conceder a los solicitantes que opten a las ayudas en las presentes bases, se concretarán los baremos de acuerdo a los siguientes criterios. (Hasta 23 puntos)

A1) Trayectoria demostrada por la entidad en el Municipio con los años continuados de trabajo de la entidad en el Municipio. (Hasta 3 puntos).

A2) Trayectoria de las entidades beneficiarias en políticas o actuaciones dirigidas a la igualdad de mujeres y hombres (contar con diagnósticos de igualdad, planes de igualdad, normas de representación paritaria en los órganos de dirección de la entidad, normas de uso no sexista del lenguaje en todos los materiales que se elaboren, etc.). (Hasta 3 puntos).

A3) Subvenciones recibidas con continuidad en años anteriores. (Hasta 3 puntos).

A4) Tamaina eta ordezkari-tza (Urretxuko bazkide-kopuru erreala). (3 punturaino).

A4) Volumen y representatividad (nº real de personas socias de Urretxu). (Hasta 3 puntos).

A5) Herrian proposatutako jardueren antzeko besterik ez izatea. (5 punturaino).

A5) Inexistencia en la localidad de otras actividades similares a las propuestas. (Hasta 5 puntos).

A6) Euskararen erabileraren sustapenaren aldeko jarrera (3 punturaino).

A6) Actitud favorable del fomento del uso del Euskera (Hasta 3 puntos).

A7) Baztertze arriskuan dauden pertsonen parte hartze zuzenera bideratutako ekintzak. (3 punturaino).

A7) Actividades dirigidas a la participacion directa de personas en riesgo de exclusion (Hasta 3 puntos).

TAULA OSAGARRIA – 2023ko DIRU-LAGUNTZA ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK – ELKARTEAK

A) ELKARTE ESKATZAILEAREN EZAUGARRIAK (23 PUNTURAINO)			
A1) Ibilbidea: Erakundea eratu zenetik Urretxun elkarteak lan egin dituen urteak.	10 urte baino +	8 urte baino +	5 urte baino +
	3	2	1
A2) Elkartearen ibilbidea berdintasun politiketan	3 jarduera baino +	2 jarduera	Jarduera 1
	3	2	1
A3) Aurreko urteetan diru-laguntzak jaso izana	6 urte baino +	4 urte baino +	2 urte baino +
	3	2	1
A4) Tamaina / Ordezkaritza: Urretxuko bazkide-kopurua :	100 kide edo +	50 kide edo +	25 kide edo +
	3	2	1
A5) Herrian proposatutakoaren antzeko ekintzak daude.	EZ	BAI	
	5	0	
	3 jarduera baino +	2 jarduera	Jarduera 1
	3	2	1



A6) Euskararen erabileraren sustapenaren aldeko jarrera	3 jarduera baino +	2 jarduera	Jarduera 1
	3	2	1
A7)Baztertze arriskuan dauden pertsonen parte hartze zuzenera bideratutako ekintzak	3 jarduera baino +	2 jarduera	Jarduera 1
	3	2	1

TABLA COMPLEMENTARIA DE CRITERIOS DE VALORACIÓN SOLICITUDES DE SUBVENCION 2023 – ASOCIACIONES

A) CARACTERISTICAS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE (HASTA 23 PUNTOS)			
	+de 10	+ de 8	+de 5
A1) Trayectoria: Años continuados de trabajo en Urretxu desde la constitución de la entidad	3	2	1
A2) Trayectoria de la entidad en políticas de igualdad	+de 3 actuación.	2 actuaciones	1 actuación
	3	2	1
A3) Subvencionado con continuidad en años anteriores	+ de 6	+ de 4	+ de 2
	3	2	1
A4) Volumen / Representatividad: Nº real de personas asociadas de Urretxu.	=> de 100	=>de 50	=> de 25
	3	2	1
A5) Existen en la localidad otras actividades similares a las propuestas.	NO	SI	
	5	0	
A6) Actitud favorable del fomento del uso del Euskera	+de 3 actuación.	2 actuaciones	1 actuación
	3	2	1
A7) Actividades dirigidas a la participación directa de personas en riesgo de exclusión	+de 3 actuación.	2 actuaciones	1 actuación
	3	2	1

8.-ONARTUTAKO DIRU-LAGUNTZETAN MURRIZKETAK

- Lokal publikoaren erabilera partekatua, %5
- Lokal publikoaren erabilera eskusiboa, %15
- Lokal publikoaren erabilera eskusiboa eta mantenimendu gastuak Urretxuko Udalaren kargu, %25

9.AURREKONTUA ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

Oinarri espezifikoko hauen bidez deitutako diru-laguntzen zenbatekoa 15.500,00 eurokoa da eta dagokion diru atalaren kontura finantzatuko da.

Aplikatu ez diren inportek ondorengo erabakietara igorri ahal izango dira.

Aurrekontuaren kopurua iritsiko ez balitz dirulaguntza jasotzeko eskubide duten eskubide guztiak betetzeko, dagoen dirua urtean egon diren eskari guztien artean banatuko da proportzionalki, partida agortu arte.

Hala ere, aipatu kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

8.-MINORACIONES DE LA CUANTIA CONCEDIDA

- Uso compartido de local publico 5%
- Uso exclusivo de local publico 15%
- Uso exclusivo de local público y gastos de mantenimiento a cargo del Ayuntamiento de Urretxu 25%

9. PRESUPUESTO Y CUANTÍA DE LA SUBVENCION.

El importe de las Ayudas convocadas a través de estas bases específicas asciende a la cantidad de 15.500,00 euros y será financiado con cargo a la partida presupuestaria correspondiente.

Los importes no aplicados se podrán trasladar a posteriores resoluciones.

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a subvención, se procederá al reparto proporcional del dinero presupuestado entre todas las solicitudes presentadas en el año, hasta agotar la partida.

Dicha cantidad podrá ser objeto de ampliación, de conformidad con lo previsto en las Bases de Ejecución de Presupuesto Municipal.



Urretxuko udala



10. JUSTIFIKAZIO ETA ORDAINKETA FORMA ETA EPEAK.

Dirulaguntzak 2 zatitan ordainduko dira.

- Erabakiaren jakinarazpenarekin batera %75 ordainduko da.
- Beste %25a ordainduko da, honako dokumentazioa aurkeztu ondoren:

1-Udalaren justifikazio ofizialaren plantilla behar bezeela beteta (IV ERANSKINA).

2-Gastu eta ordainketa justifikagiriak.

3-Jarduera burutu denaren dokumentazio grafikoa, kartelak, liburuxkak, prentsa oharrak....

4-Nahi izanez gero, baliogarri izan daiteken beste edozein dokumentazio.

Justifikazioaren dokumentazioa 2024ko urtarrilaren 31 baino lehenago aurkeztu beharko da.

Aipatutako memoria hori aurkezten ez bada, onartutako diru-laguntza galdu egingo da automatikoki.

Kasu berezietan eta eskatzaileak proposamena behar bezala frogatzen badu, aurreko puntuan aipatutako ordainketa kopuruak aldatu ahal izango ditu Gizarte Ekimenaren Batzordeak.

10. FORMA Y PLAZOS DE PAGO Y JUSTIFICACIÓN.

Las subvenciones se harán efectivas en 2 plazos:

- En el momento de la concesión se abonará el 75% de la cantidad concedida.
- El segundo pago, 25% restante, se realizará previa presentación de la siguiente documentación:

1-Modelo de justificación oficial elaborado por el ayuntamiento (ANEXO IV).

2- Justificantes de gasto y justificantes de pago.

3- Dossier con la documentación gráfica que acredite la realización de las actividades programadas (carteles, folletos, recortes de prensa, etc.)

4- Opcionalmente, cualquier otra documentación adicional que se considere necesaria.

Esta documentación justificativa se presentará, antes del 31 de enero del año 2024.

La no presentación de dicha documentación supone la pérdida automática de la subvención.

En casos excepcionales y, a propuesta debidamente justificada de la entidad y/o persona solicitante, la Comisión de Acción Social podrá acodar una distribución del abono de las subvenciones distinta de lo mencionado en el párrafo anterior.

EGINBIDEA: Oinarri hauek Udalbatzak 2023ko otsailaren 23an onartu zituen.

Urretxun, 2023ko martxoaren 22an
Idazkariak